

Inarrean Kantu bazkarirako egin sarrera hitzaldia

Aurten bigarren urtea. Ttipi-Ttapan urtean zehar agertu diren kantu zaharrak elgarrekin kantatzeko parada paregabea.

Batzuek eta bertzeek kantu zaharrak kantatu edo berdin paper zahar bainan baliosak prestatu dizkigute.

Guzieri esker eskutan duzuen liburuxka hunek gordeko ditu bertirako kantu hauek. Zorionez ez dira galduak izanen.

Eskerrak ere urririk Inarrea utzi diguten ja-beeri.

Ongi etorriak beraz Senperrari, baita ere auzo herrietatik etorri

direnei, eta urrungo Flandriatik etorri lagunei.

Gure asmo bakarra da denek egun bat goxoa eta atsegina elgarrekin pasatzea eta heldu den urteko bidea idekia uztea.

Gure buraso eta ingurukoek eman digute kantuz hartzeko gogoia, kantuaren maitasuna. Orain, guri da ondoko belaunaldiari gure gazteei maitasun bera eskaintzea, ezagut dezaten euskaraz kantatzea zoin den gozagarri eta plazerrez betea.

Kantuak bezala euskarak ere, Europako hizkuntza zaharrena baita,

iraun eta bizi dadila Senperen eta Euskal Herri osoan. Gure buraso eta arbasoak dau den lekutik ere loriatu daitezten.



Mixel Mendiburu

Parte hartzaileak, Paxkal Duhau txistuz eta Mathieu Hiribarren aurrekoa dantzatzen.



Laurent Apeztegi galdeginik huna Laka bertsolariak zer zion egun horretaz, bi bertsutan:

Loriaturik abiatzen naiz Senperera jin naizena
Dena kantu, dena plazerra loriagarria zen dena
Antolatzer lehen lehenik bihotzetik goresmena
Eskerrak ere sala eder hau gaur prestatua duena
Egun egin den pesta haundi hau ez dadin izan azkena.

Azken bertsua bota behar dut, nik Laurent hunen oinetan
Errepikatu behar dut beraz nagoela lorietan
Egon gintaizke, gu horrelaxe goizeko bi orenetan
Bainan nahitez barreiatuko gara orai bost partetan
Oroitzapenak halare atxiki bakoitzak bere etxetan



Laka, 16/06/00

PATXI LASKARAI ARGAZKILARIA

Zure argazkiak... Herri baten itxurak... Bizitzaren irudiak...

Garat Karrika, 7 - DONIBANE LOHITZUNE • © 05 59 26 11 91